# MARIJESIAK GERNIKAN

1. Sakramentu Santu Jauna
zelebradu zanian
izena ipiñi eutzen
Jesus Salbadoria.

2. Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzia
kontentu aren handiz
guztiok poz gaitian.

3. Adan formatu zan
lehenengo lurrian
pekatu egin eban
paradiso terrenalian.

4. Linboan egoan deiez
bost milla urtian
Jauna zerutik lurrera
etorri artian.

5. Eguzki dibinala
gauaren gauerdian
etorri zan mundura
gizonaren antzian.

6. Trinidade altuko
bigarren pertsonia
transformaturik dago
Belenengo portalian.

7. Idigi dira zeruko
ate diamantezkoak
harexekin batera
leiho izarrezkoak.

8. Nabegadua izan zan
bederatzi hila betian
mundu honetako
itxasoaren gainian.

9. Eguzkia zelan doan
kristalaren artetik
semia jaio alan
amaren sabeletik.

10. Nor da hemen mensajerua:
San Gabriel aingerua
egingo dabela ondo
Jaunaren agindua.

11. Astoak arrantzia
idiak arnasia
halan berotzen eben
jaio zan infantia.

12. Hiru Errege Magoak
hain bide luzian
ostatu hartu eben
hain etxe pobrian.

13. Gasparrek intzentzua
Meltxiorrek urria
Baltasarrek eroeban
mirra preziosua.

14. Herodes Erregia
hain faltso traidoria
zeren dumua dezu
Kristoren jaiotzia.

15. Mendian egon zala
jaboten ganadua
manifestatu jakon
zerutik aingerua.

16.

17. Agur ba dontzellia
grazia asko betia
zure izena dezu
Maria Birjiñia.

18. Arkangel San Gabriel
anunziadoria,
ez gaituz espantatu
hain jondo humildia.

19. Josepek diñutso
Maria Birjiñiari:
noiz deklaratuko dabe
esperantza gure hori?

20. Nor eta nor bizi da
etxetxu zar horretan?
nor eta zer gura zeunke
Jaunaren ordu honetan.

21. Billosik bazagoz ere
ez zara zu pobria
zeruan josirik dago
zuretzako erropia.

22. Otzaren negarrez dago
jaio dan infantia
bere amak diñutso
oze musika dultzia.

23. Belenengo urian
Gabon gabaren erdian
Birjiña Santisima dago
kontzolaziño handian.

24. Korraletako ardiak bere
dantzan ebiltzan orduan
gure Jesus Salbadoria
jaio dalako munduan.

25. Jesus Dibino gauaren otzan
jausten dan iñestasiye!
erloju bien honela bada
hil da ganadu guztie.

26. Hortixik gora ni noiela
ospitaletxu zar baten
aita San Jose topatu neban
astotxu zar bat txalmatzen.

27. Nazaretako Tenpluan dago
Ama eder bat jarririk
izena berak Maria deuko
ondo graziaz beterik.

28. Bederatzi gau tristetan
ibili gara otzetan
emoten bazu limosnatxu bat
zartuko degu gure poltzetan.

(Onek sei kopla ondoren
"Da bart Belenen
da bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren")

---

Lehenengo lau egunetan onek argitaratuniko bertso edo kopla guztiak "Abendu Santuaren" soñuagaz abestuten dira. Urrengo bost egunetan "Billosik bazagozen" musikantzako leioa hau da: "Maria, Jose
Jesus, Maria"

Eta bigarren musikantzako leioa hau da: "Jesukristo
adoratzen zaitugu
Jesukristo"



GERNIKAKO MARI JESI